

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	GALDARAGINTZAKO PRODUKTUAK FABRIKATZEKO ETA MUNTATZEKO DOKUMENTAZIOA	Iraupena	30
		Espezifikoa	
Kodea	UF0602		
Lanbide-arloa	FABRIKAZIO MEKANIKOA		
Lanbide-eremua	Eraikuntza metalikoak		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Galdaren eta egitura metalikoen diseinua	Maila	3
Prestakuntza-modulua	Galdaragintzako produktuen diseinua	Iraupena	140
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Galdaragintzako produktuen ezaugarrien zehaztapena	Iraupena	80
	Galdaragintzako produktuak fabrikatzeko eta muntatzeko materialak		30

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC1145_3ko LB3 lanbide-burutzapenarekin: GALDARAGINTZAKO PRODUKTUAK DISEINATZEA.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak:

A1: Xaflen eta profilen marraketa-, mekanizazio-, ebaketa- eta konformazio-dokumentazioa prestatzea galdaragintzako produktuak fabrikatzeko eta muntatzeko, fabrikazio- eta muntaketa-planoetatik abiatuz, kalitate-arauak eta laneko eta inguruneko arriskuak prebenitzeko arauak betez.

EI1.1 Fabrikazio-planoak interpretatzea, haietan dagoen informazioa lortuz, xafiak, profilak eta hodiak martzatzeko, mekanizatzeko eta korformatzeko.

EI1.2 Xafiak, profilak eta hodiak martzatzeko eta ebakitzeko prozesuak definitzea galdaragintzako produktuetarako, fabrikazioan parte hartzen duten alderdiak identifikatuz.

EI1.3 Beroan tolesteko prozesuak definitzea.

EI1.4 Bastidoreetarako tolesturetarako, marraketa-datuetarako eta txantiloien garapenerako behar den informazioa definitzea.

EI1.5 Galdaragintzako produktu baten fabrikazioari buruzko dokumentazioa prestatzea:

- Makina, eremu eta lan-ildo bakoitzerako informazioa garatzea, ezarritako prozesuarekin bat datozen eskuzko programazio-teknikak eta aplikazio informatikoak erabiliz.
- Produktua kodetzea behar bezala identifikatzeko eta haren norakorako.

Edukiak:

1. Fabrikazio- eta muntaketa-teknologia galdaragintzan.

- o Marraketa-eragiketak. Pieza diseinatzeko metodoak. Marraketa-lerroak.
- o Metalak oxiebaketa, plasma-arku eta laser bidez ebakitzea. Ebaketa-ezaugarriak, -ekipoak eta -parametroak.
- o Soberakinak baliatzeko sistemak. Habiaratze-teknikak.
- o Galdaragintzako produktuen konformazioa eta mekanizazioa: ezaugarriak eta ekipoak.
- o Galdaragintzako muntaketa-teknikak: motak, ezaugarriak, ekipoak eta aplikazioak.
- o Galdaragintzan erabiltzen diren mekanismoak: kate zinematikoak, espekak, engranajeak, elementu malguak dituzten mekanismoak. Potentzia-transmisioa.
- o Fabrikatzeko eta muntatzeko prozesuen kostuak.
- o Denboren kalkulua.

2. Galdaragintzako produktuen fabrikazioan erabiltzen diren makinaren programazioa.

- o Makinen eskuzko programazioa
- o Makinak programatzeko aplikazio informatikoak
- o Programazio-teknikak, lengoaiak eta CNCaren simulazioa.

3. Galdaragintzako produktuen fabrikazioko dokumentazioaren prestatzea.

- o Diseinatutako produktuaren txosten teknikoak: sartzen diren dokumentuak eta haien prestatzea.
- o Prozesu-orriak.
- o Produktuaren AEAMa.
- o Kalitateari eta laneko arriskuen prebentzioari buruzko dokumentazioa.
- o Dokumentazioa sailkatzea, artxibatzea eta eguneratzea.

C atala: ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.

Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.

- 25 urte baino gehiagokoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Galdaren eta egitura metalikoen diseinua.